

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Literaturaren eta bizitzaren etika



Amaia Alvarez Uribe



Askatasuna, etengabeko borroka bat

ANGELA DAVIS

Itzultzaileak:

Amaia Apalauza Olio,
Iñigo Roque Eguzkitza,
Garazi Ugalde Pikabea.
Katakarak, 2016

Iazko urrian Iruñeko komisaria batean hil zen Elhadji Ndiaye gazte senegaldarra. Atxilotu eta bortitza baten ondoren gertatu zen heriotza eta geroko manifestazio jendetsuan *Black Lives Matter*, *Bizitza da handiena*, eta *Polizia ugari, justizia gutxi* leloak ozen entzun ziren. Ekitaldi horretako argazki batekin hasten da Angela Davisen liburu hau euskaraz.

Has zitekeen ere larriki gaixo dagoen Oier Gomez preso kartzelatik ateratzeko egon den mobilizazio sozialarekin. Edo azken LGBTIfobiaren kontrako manifestazioaren Donostiako kartelari begira: “Ez hemen ez inon. Txetxeniarekin elkartasuna”. Edo maiatzaren 19an Gasteizko Errekaleor auzo okupatua Ertzaintza eta Iberdrola sartu zirenean auzokoek egindako erresistentzia eta sare sozialetan eta kalean jasotako elkartasunari erreparatuta.

Askatasuna lortzeko “etengabeko borrokan” engaiatu behar dugula azpimarratzen du egileak liburu hamar ataletan bildutako elkarrizketa eta hitzaldietan. Jendartearen eraldatzeko “estatuaren indarkeria estrukturala denez” aldaketa sistemikoak behar dira, eta horretarako masa mugimendua: jendea kontzientziatu, antolatu eta mobilizatzea.

Justizia soziala erdiesteko intersektionalitatea dugu: borroken arteko loturak eginez, jendearen premiei begira, ez etekin kapitalistei. Izan ere, elkartasunak “mutualitatea” dakarrela dio, beraz, arrazakeriaz, matxismoaz edo klasismoaz ezin daiteke bereizirik hitz egin.

Era berean, ekintzari lehentasuna ematen dion arren, ideien eta hitzen inguruko hausnar-

keta egin behar dela dio, horregatik ikertzaile-aktibistei buruz hitz egingo digu, praktikarekin batera diskurtsoa osatu behar delako.

Hortaz, feminismoak erakutsitako “pertsona politikoa da” eta Martin Luther Kingek esandako “bati eragiten dionak guztioi eragiten digu zeharka” gogoan hartuta, borroka bateratzeko deia egiten du “elkartasun transnazional” baten bidez.

Fergusoneko hilketa, kartzela industria konplexua eta Palestinaren zapalkuntza topatuko ditugu orriotan beste batzuen artean, iazko otsailean gurean “Kartzela eta Emakumea” jardunaldietara etorri zenaren eta iazko Durangoko Azokako nobedadeetan liburu gehien izan zituen egilearen eskutik (bere biografia, bere liburutik ezagunena, jardunaldietako “akten liburua”, eta hemen aurkezten ari garena).

Sar zaitez Angela Davisen unibertsoan zu ere eta, Hedoi Etxartek dioen moduan, amestu, landu, eztabaidatu eta saretu, edo ekin eta pentsatu, hots, bietan jarrai. Literaturak ere baduelako epika, ez-fikzioa, saiakera. Etikaren ondoko etika. ■



Angela Davis
(Birmingham,
Alabama, AEB, 1944)